



#ezgoazetxera

1

Errausketa
betiko lapurreta
haserre gaudelako
ez goaz etxera!

2

Plaza hontan
merke biziko gera
etxerik ez dugunez
ez goaz etxera!

3

Lanpostua
hain da flexi-ziurra...
bihar ez dugu lanik
ez goaz etxera!

4

Zergak ere
aberatsek debalde
hau bai paradisia!
Ez goaz etxera!

5

Paper gabe
erdi-herritar gera
etxeke ez bagera
ez goaz etxera!

6

Polizia
dator gu animatzera
kalejira alaian
goazen espetxera

Txin txin, txin txin...

Diputatu egin nintzan
zentimorik gabe
errausten egin nintzan, maitia
5 milioien jabe

Txin txin, txin txin... diruaren hotsa...
Markeli ematen dio, maitia, bihotzian poza

Txin txin, txin txin... diruaren hotsa...
Denisi ematen dio, maitia, bihotzian poza

Zaborra gora, zaborra behera...

Hau den! Hau den! Hau den zabor pila!
Ez erretzeko, ez erretzeko, birzikla dadila!
Zaborra gora, zaborra behera, zaborra gora eta behera
ai, ai, ai, ai,
zaborra gora, zaborra behera
Markel esan zak egija!

Isil-isilik daude

Isil-isilik daude
Markel ta Eneko...
erraustu nahi gaituzte dirua lortzeko!